

7. HIRI EKOLOGIA ETA MUGIKORTASUNA

SARRERA

Hiri Ekologiako eta Mugikortasuneko Alorra hiriko herritarrentzat osasungarria izan behar duen ingurune bat mantentzeaz arduratzen da, osasun-, higie- eta ikuskapen-baliabideak erabilia, eta hiri-eredu jasangarria sustatzen du, bai Udalaren jarduketa, ondare eta baliabideetan bai hirian berean gauzatuko dena. Mugikortasun jasangarriko departamentu berezi bat sortzea, ahalbidetzeko, hala arauen ikuspegitik nola hirian esku-hartzeari dagokionez, herritarrak modu jasangarri eta eraginkorrean mugitzea, betiere lehenetsita oinez, hiri-garraioan edo bizikletaz ibiltzea, garraio motordun pribatua erabili ordez. Azkenik, Iruña, udal-mailan, autosufizientea izatea sustatu behar du, energiari dagokionez, efizientzia- eta jasangarritasun-irizpideetan oinarrituta.

a) Osasun-zerbitzuak eta osasuna sustatzekoak

- Ingurumenaren ikuskapena (ura, airearen kutsadura, zaratak...).
- Elikagaien ikuskapena (prestaketa, salmenta eta kontsumoa).
- Zoonosia (animalien populazioaren eta haien gaixotasunen kontrola).
- Epidemiologia (osasun-inkestak, elikadurazko toxiinfekzioak, osasun-heziketa).
- Desinfekzioarako eta intsektu eta arratoiak hiltzeko parkea.
- Komun publikoak.
- Bainuetxeak.
- Bilketa bereziak.
- Laborategia (analisi kimiko eta mikrobiologikoak).
- Hilerria

b) Hiri Ekologiako Zerbitzua

- Jasangarritasuna sustatzea hirian eta Udalean.
- Pasabide ekologikoen sare bat sortzea, natura integratzeko hiri eraikian.
- Hiriko biodibertsitatea babestea, eta hiriko natur ondarea iraunarazten laguntzea, bai eta animalien eskubideak zaintzea ere.
- Jasangarritasunean murgiltzeko prozesua abiaraztea, udal-arau eta -aurrekontu guztietan eragin behar duen Agenda 21 partizipatibo eta irisgarri bat baliatuta.
- Jasangarritasun-irizpideak eranstea udal-kontratu guztietan eta zerbitzu publikoen kudeaketan.
- Pobrezia energetikoaren kontra borrokatzea.
- Komunitate-konpostajeko guneen sarea bultzatu eta garatzen laguntzea.

- Hiriko komunitate-baratzeen sarea garatu eta kudeatzea.
- Ingurumen-heziketako programak sustatu eta egitea, herritar guztiei zuzenduta: hala adingabeei, ikastetxeen bidez, nola helduei, Ingurumen Museoa eta beste zenbait tresna baliatuta.

c) Mugikortasuna

- Hiriko mugikortasunaren segimendua egin, berariazko azterlanak enkargatu eta jarduteko proposamenak diseinatzea.
- Mugikortasuna diseinatzea Hiri Bizigarriko eta Etxebizitzako zein Herritarren Segurtasuneko eta Elkarbizitzako alorrekin eta Iruñerriko Mankomunitatearekin batera, eta eredu berriaren inguruko prestakuntza eta hedapena planifikatzea.
- Arauetan (Zirkulazio Ordenantza) behar diren aldaketen gidaritza, eta aldaketen sustapena udal-eskumeneko eskusiboak ez diren arauen kasuan (Hiri Mugikortasun Jasangarrirako Plana).
- Herritarren kontseiluen, Hiriko Kontseiluaren eta Mugikortasun Jasangarriaren Behatokiaren erabakitze ahalmena sustatzea, mugikortasuna ukitzen duten esku-hartzeetan.
- Bultzada ematea ibilgailuen zirkulazioa baretzeari eta bizikletaren erabilerari, horretarako baliatuz Udalaren arau-, ondare- eta tributu-tresnak.
- Hiri Ekologiako Zerbitzuaren ingurumen-hezkuntzako plana zabaltzea, mugikortasun jasangarria ere barne har dezan.
- Nbici-BiziZ zerbitzuaren bideragarritasuna aztertzea eta proiektua birformulatzea, hiri-mugikortasuneko plan zabalago baten barnean sartuta.
- Eskola-bide seguruen sorrera sustatzea, ikastetxeekin elkarlanean.
- Egungo bidegorri-sarea aztertu eta aldaketak sustatzea, Iruñerriko Mankomunitatearekin eta Hiri Bizigarriko eta Etxebizitzako zein Herritarren Segurtasuneko eta Elkarbizitzako alorrekin elkarlanean.
- Oinezkoen pasealekuak –inguruko herrietakoekin lotuak– egitea, Iruñeko auzoak elkarrekin modu seguru eta atseginean lotze aldera.
- Jabari publikoko informazio- eta publizitate-euskarrien emakida.

d) Energia Berdea

- Energia-eraginkortasuna sustatzea hala Udalean nola hirian. Udaleko energia-kontsumoak kontrolatu, eta haiei lotutako udal-ekimen guztietan parte hartzea: energia-hornidurako kontratuetan, eraikinen mantentze-jardueretan, eraikin berrien proiektuetan... Hori guztia, Hiri Bizigarriko eta Etxebizitzako Alorrarekin batera.
- Energia-autoekoizpena sustatze aldera, udal-arauak aldatzea –eta foru erkidego mailan egiteko ere bultzatzea–, energia-autokontsumorako ereduak ahalbidetuz zergen eta finantzaketaren bitartez.

- Aztertzen hastea energia-kontratuak energia berriztagarriak ekoizten dituzten kooperatibekin egiteko aukera.
- Berariazko helburua: Energia Merkaturatzeko Udal Enpresa bat sortzea, honako eginkizun hauekin:
 - Egungo instalazio fotovoltaikoa kudeatu eta hura hedatzen saiatzea Udalaren eskura dagoen ondarea baliatuta.
 - Erraztasunak ematea herritarrek eta gizarte-eragileek energia berdea erabil dezaten (energia-aholkularitza).
 - Modu aktiboan bultzatzea ekoizle berriak elkarrekin sarean ari daitezen, ekoizle txikien kooperatiba baten sorrera sustatuz, Udalaren babes juridikoaren pean.
 - Sortzekoa den enpresa merkaturatzaileak eragindako diru-sarrerak berrinbertitzea pobrezia energetikoari aurre egiteko programetan.

HIRI EKOLOGIA ETA MUGIKORTASUNA

Alorraren 2016ko helburu espezifikokoak bete egin ziren; hala, zehapen-**espedienteen** % 99,51 (408tik 406) epe barruan ireki ziren, eta zehapenen % 99,10 (447tik 443) izapidetu. Gainera, eutsi egin zaio ISO 9001:2000 kalitate-sistemari. Ofiziozko salaketen eta ikuskapenen bidez, 1.322 espediente abiarazi ziren, eta aurreko urtean 1.136 espediente izan ziren. Ofiziozkoak pixka bat areagotu ziren (696 izan ziren, eta iaz 657), eta salaketek behera egin zuten (439 izan ziren, eta 2015ean, 502). Zerbitzuen arabera sailkatuz gero, Ingurumen Osasunekoak 154 izan ziren (salaketenak 37, ofiziozkoak 98 eta eskaerakoak 19), Ingurumen Ingeniaritzakoak 199 espediente izan ziren (salaketenak 37, ofiziozkoak 22 eta eskaerakoak 3), Elikagaien Ikuskaritzako 623 izan ziren (salaketenak 31, ofiziozkoak 562 eta eskaerakoak 30), eta Zoonosiko 346 espediente (salaketenak 197, ofiziozkoak 14 eta eskaerakoak 135).

Espedienteen bilakaera, zerbitzuen eta urteen arabera

Zerbitzua	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Ingurumen Osasuna	194	173	127	167	142	154
Ingurumen Ingeniaritza	204	192	219	232	244	199
Elikagaien Ikuskaritza	734	784	495	628	537	623
Zoonosia		195	199	208	236	346
Guztira	1.135	1.344	1.040	1.235	1.136	1.322

Hiri Ekologiako eta Mugikortasuneko Alorrak Santa María la Realeko auzoko lursail batean sortutako arazo bati heldu zion; lursaila Club de Tennis elkarteara da. Bertan, zortzi pertsona ezarri ziren egoera irregularrean, eta ez zegoen adingaberik haien artean. Tokia garbitu eta mantentzeaz arduratu zen, eta komun bat jarri zuen. Osagarri moduan, gizarte-arreta jarraitua egon zen, Herriarren Segurtasuneko langileak zeuden, eta hala Gizarte Ekintzako nola Hiri Ekologiako zerbitzuek etengabe ebaluatu zuten egoera, harik eta pertsona horiek joaten ziren arte.

INGURUMEN OSASUNeko IKUSKARITZA

Osasun eta ingurumeneko ikuskaritza-bisitak egiten ditu, eta, horren osagarri moduan, laginak hartzen dira noizean behin, Udal Laborategiak aztertzeko. Jarduketan % 97,7 ofiziozkoak izan ziren, eta % 2,3 baino ez ziren izan herritarrek eskatutakoak.

Ofiziozko osasun-zaintzako programak urte osokoak dira, eta 2016koek lotura izan zuten honako gai hauekin, besteren artean: txorrotako uraren osasun-kalitatea (1.481 lagin), ibaietako azaleko urak (24 lagin), igerilekuak (457 ikuskapen eta laginen 241 azterketa), haur-eskolak (44 ikuskapen), estetika eta norberaren garbitasuna lantzen dituzten merkataritza-lokalak (687 ikuskapen), eta merkataritza-lokal berriak (632 ikuskapen).

Ofiziozko esku-hartzeak urteen arabera, ikuskapenak eta laginak aintzat hartuta

	Ikuskapenak guztira	Laginak guztira
2010	1655	1760
2011	1985	1806
2012	1728	1850
2013	1782	1677
2014	1772	1905
2015	1914	1790
2016	1904	1756

Iruñeko **Udal Laborategiaren** eginkizun nagusia elikagaiei eta ingurumenari buruzko laginen analisi kimikoak eta mikrobiologikoak egitea da; lagin horiek Elikagaien eta Ingurumen Osasunaren Ikuskaritzak hartutakoak dira, hiria osasun-kontrola egiteko.

Funtsean, laginketak eta analisisiek elikagai galkorrei eragiten diete, hartzeko prest egoten diren produktuetan bereziki. 2016an, ikastetxe, haur-eskola eta adinekoen egoitzetako jantokietan ematen diren menuen laginketarekin jarraitu zen, eta otorduen konposizio nutrizionala aztertu.

Elikagai-mota	Laginak	Salakuntza kimikoak	Mikrobiologiako salakuntzak	Guztira
Esnekiak	42	152	72	224
Haragikiak	79	510	65	575
Arrainkiak	53	198	32	230
Olioak eta gantzak	15	159	0	209
Opilak eta izozkiak	24	120	48	168
Plater prestatuak	120	220	198	418
Alergenoak	51	51	0	51
Beste batzuk	148	512	174	686
Salaketak	3	0	6	6
Guztira	535	1922	595	2517

2016an zehar, lorategietako, parkeetako eta ikastetxeetako 768 iturri publikoren kontrola egin zen, 1.515 lagin hartuta. Iruñeko elkarte guztietako igerilekuetako uraren 248 lagin aztertu ziren; guztira, 2.925 determinazio kimiko eta 1.719 determinazio mikrobiologiko egin ziren. Arga, Elortz eta Sadar ibaietako ura kontrolatzeko, 25 lagin aztertu ziren; guztira, 275 determinazio kimiko eta 75 determinazio mikrobiologiko egin ziren. Horrez gain, Laborategian 396 lagin aztertu ziren hirugarrenek eskatuta, 27 lagin partikularrek eta enpresek eskatuta, eta 369 lagin erakunde ofizialek eskatuta.

EPIDEMIOLOGIA ZERBITZUA

OSASUNA SUSTATZEKO PROGRAMAK

“**Gosaldu, egunero**” programaren hartzaileak Iruñeko Lehen Hezkuntzako 4. mailako haurrak dira. Programa 2008-09 ikasturtean abiarazi zen, haurrek gosari osoa eta orekatua egunero har dezaten. Abiapuntua da elikaduraren inguruko heziketa eman daitekeela. Programa irailean abiarazten da, eta bisita egiten da Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztietara, edukiaren berri emateko. Jardueraren hasieran, proiektio bat egiten da, eta, ondoren, tailer bat; hartan, gomendio nutrizionalak betetzen dituen gosari bat hartzen da. Edizio honetan, prestakuntza nutrizionalaz gain, informazioa eman da elikadura-intolerantziaren bat dutenentzako elikagaiei buruz, eta dastatu egin dira horiek. Programa martxan jartzeko ekitaldian, Joseba Asiron alkateak hartu zuen parte, Sanduzelaiko ikastetxe publikoan. 2016-17 ikasturtean, hiriko 41 ikastetxeetako 40tako ia 2.000 ikaslek parte hartu zuten; ikastetxeak hala publiko nola itunpekoak ziren, gaztelaniazko eredukoak zein euskarazkoak. Eguneroko gosariaren ezaugarriei buruzko inkesta 1.928 ikaslek bete zuten. Horien % 94,5ek egunero gosaltzen dute, baina % 26,2k soilik hartzen dute gosari orekatu eta osoa. Bestalde, ikasleen % 30,2k nork bere gosaria prestatzen du ikastetxera joan aurretik, eta % 78,8k 15 minutu baino gutxiago ematen dituzte gosaltzen. Ikasleek jarraitzen dute eramaten hamaiketakoa jolastordurako.

Horra hor Iruñearen helburua: “Herritarren artean sustatzea aukerarik osasungarriena errazena eta eskuragarriena ere izatea”. Ildo horretan, **ibilketa nordikoan hasteko saioak** bultzatzen ditu; ariketa fisiko horren oinarria bi makila erabiliz ibiltzea da. Saioak 2008an hasi ziren, eta 2.909 leku daude. Dena den, 2016an lehenetsi zen 60 urtetik gorakoek eta eskarmenturik ez dutenek parte hartzea. Maiatzetik ekainera bitarte, 16 saio eskaini ziren eta 441 pertsonak hartu zuten parte; 326k, asteazkenetan, eta 115ek, larunbatetan. Parte-hartzaileen % 85 50 urtetik gorakoak ziren. Udaberrian ikusi zen adineko ugari parte hartu zutela, eta, beraz, jarduera adineko gehien dauden auzoetara eraman da. Topalekuak osasun-zentroak dira, eta bertako langileak taldearekin batera joaten dira. Neurritzko jarduera fisikoko saioetan, 198 pertsonak parte hartu zuten; horien % 63k 60 urte baino gehiago zituzten, eta gehienak emakumeak ziren.

Larunbateko saioak intentsitatea handiagokoak dira, herritar guztiei zuzenduak, eta 125 leku daude.

AHOLKULARITZA ETA INFORMAZIOA HERRITARRENTZAT

Aholkularitza-lanak eta txostenak egiten dira **udal-ekintzek osasunean duten inpaktuari** buruz; esate baterako, hauexek: hiri-baratzeak egitea, hilerria eta errausketa-labeko errautsetarako espazioa egokitzea, desfibriladoreak erostea, ibaian bainua har daitekeen eremuetan seinaleak jartzea, eta ikastetxeetako jangeletan elikagaiak erosteko irizpideak ematea. Horrez gain, lan egiten da adinekoentzako hiri atseginen sarean, alkohola arduraz edateko programa batean, Milango elikadura-politikaren itunean, edota *prozesionaria* dagoenean jarraitzeko modukoak diren gomendioetan.

Martxoaren 7tik ekainaren 27ra bitartean, hirian dauden landare-espezie nagusien **polinizazio-mailari** buruzko informazio-sistema aktibatu zen, polen horien aurrean sentiberak diren pertsoneri enbarazu egiten diete eta. Alertaren aurreikuspena prestatzeko, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Ingurumen Ikuskaritzako Zerbitzuak emandako informazioa erabiltzen da. Hartara, 2016an zehar 148 pertsona gehiagok eman zuten izena, eta izena emanda dauden 1.182 lagunei posta elektronikoko mezuak edo telefono mugikorrerako mezuak bidaltzen zaizkie, doan, asteko aurreikuspenaren berri emateko.

Polen-mailari buruzko informazioa jasotzen duten pertsona-kopurua

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Izena emanda	330	236	362	530	846	1.035	1.182

Ekainetik hasita eta irailaren 15era arte, Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan aritu zen **Udalabero-boladei aurre egiteko planean**. Prebentziozko neurrien berri ematen da, eta beharrezkoak diren ekintzak aktibatzen dira tenperatura igotzen denean. Orobat, Iruñeko airearen kalitateari buruzko informazioa Udalaren webgunean ere jasota dago. Hiru kaptadore daude (Iturraman, Gurutzeko plazan eta Arrotxapean), eta 2016an ez ziren mugak gainditu horietako batean ere. 2016an, lantalde bat sortu zuten zika birusa transmititzen duen eltxoaren kontrola egiteko. Zaintza-lanak egin ziren 11 astetan zehar, eta aldi horretan negatiboak izan ziren obitranpetako ikuskapen guztiak.

ELIKAGAIEN IKUSKARITZA

Elikagaien Ikuskaritzaren zeregina Iruñeko herritarrek hartzen dituzten elikagaien osasun-kalitatea zaintzea da. Era berean, zaintza-lanak egiten ditu 1.105 ostalaritza-establezimenduetan, 1.294 elikadura-establezimenduetan eta elikagaiekin lotuta dauden bestelako 85 establezimendu edo jarduera iraunkorretan. Hartara, 2016an, ikuskaritzako 3.613 bisita egin ziren, sanferminetan eginikoak barne. Orobat, osasun-kontrola egiten da handizkako azoketan eta arraina, fruta eta barazkiak saltzen diren azoka txikietan. Osasun Publikoaren Institutuak alerta-egoeren berri ematen du, eta, 2016an, horrelako 16 egoeratan esku hartu zen, elikadura-establezimenduetan edo farmazietan banatzen diren elikagaiei eragiten baitzien.

Sanferminetan, zaintza-lan bereziak egiten dira, eta laginak hartzen dira iraunkorrak ez diren establezimenduetan. Hala, osasun-kontrolako 173 esku-hartze egin ziren, eta 52 akats topatu zituzten. Horiez gain, beste ospakizun batzuetan (San Blas eta auzoetako festak, adibidez) 149 kontrol egin ziren iraunkorrak ez diren ostalaritza- eta elikadura-jardueretan.

Elikagaien Ikuskaritza dela eta, 2016an 562 espediente ireki ziren ofizioz. Horietatik, 106 kasutan zehapen-espedientea abiaraztea proposatu zen, eta 540 ohartarazpen- edo errekerimendu-espediente tramitatu ziren akatsak zuzentzeko. Bestalde, 31 salaketa izapidetu ziren. Zerbitzuak, 2016an, elikagaien 546 lagin hartu zituen.

Errekerimendu- eta zehapen-espedienteak 2011tik 2016ra bitarte

	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Errekerimenduak	619	381	512	432	543	540
Zehapenak	141	86	105	79	74	106

ZOONOSI-UNITATEA

Hiriko etxeetako eta inguruetako animaliekin lotuta dauden osasun-alderdiez arduratzen da, eta **Animaliak Hartzeko Iruñeko Zentroan (AHZ)** dago. Espazio hori 2016an berritu zen, eta obrak 2017an amaituko dira. Zentroak honako zeregin hauek ditu: zakurrak identifikatzea mikrotxip bidez, amorruren kontrako txertoak jartzea eta bertan dauden animaliei prebentziozko tratamenduak eta tratamendu terapeutikoak ematea, aske dabilzan animalian jasotzea, usoen populazioa kontrolatzea, hozka egiten duten animalientatik jarritako salaketen harira esku hartzea eta haiei osasun-behaketa egitea, eta hirian animaliak izateko ordenantza betetzen delako zaintza-lanak egitea. Udal-zerbitzu hori Taconerako zoo txikiaz ere arduratzen

da; bertan, zenbait espezieetako animaliak daude: oreinak, beltxargak, paumak eta beste hegazti batzuk.

AHZan dauden zakur eta katuen bilakaera

	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Zakurrak	350	283	223	201	172	171
Katuak	136	130	82	63	36	35
Guztira	486	413	305	264	208	206

Guztira, 206 animalia egon ziren; horietatik, 112 beren jabeekin itzuli ziren, eta 76 adoptatu egin zituzten. Udalaren webguneak badu adopzioetarako orri espezifiko bat, eta informazio osoa eskuratu daiteke hartan, eta animalien argazkiak ikusi.

Adoptatu dituzten AHZko animaliak (animaliak babesteko elkartekoak izan ezik)

	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Zakurrak	127	139	87	79	68	51
Katuak	74	51	52	49	27	25
Guztira	201	190	139	128	95	76

Zehapen-espedienteak animaliak direla-eta sortutako arazoengatik

	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Zakurrak	aske49	41	51	93	114	62
eramateagatik						
Zakurren gorotzak	ez23	24	21	27	12	15
biltzeagatik						
Zakurrak baldintza4		9	--	--	4*	4
egokietan ez egoteagatik						
Txertatu edo6		4	4	5	5*	--
identifikatzeari buruzko araudia hausteagatik						
APP araudia	36	46	33	32	49*	28*
Zakurrengatik	9	5		--	12*	10*
bideratutako beste			2			
zehapen batzuk						
Beste zehapen batzuk1		6		7	6	2
beste animalia			1			
batzuengatik						
Arrazoi guztiak	128	135	112	164	202	121

INGURUMEN INGENIARITZAKO IKUSKARITZA

Ingurumen-kutsatzaileen igorpenak kontrolatzen ditu; kutsatzaileak, besteak beste, zarata, usainak, kea eta gasak dira. Jardueraren funtsa salaketen ondoriozko arreta ematea da, eta ofiziozko ikuskapenak egitea.

	2012	2013	2014	2015	2016
Salaketak	152	192	211	171	174
Ikuskapenak	95	176	104	191	97

Guztira, 174 salaketa ipini ziren. Horietatik 154 salaketa hots-kutsadurak eragin zituen; 66 salaketa bizilagunak direla-eta aurkeztu ziren, eta 46 salaketa, tabernak direla eta. Ondorioz, 58 zehapen ipini ziren. Bizilagunen arteko salaketek % 50 egin dute behera 2009tik hona, eta ostalaritza-lokalek eragindakoek, aldiz, % 53 2005etik hona. Bestalde, 23 salaketa aurkeztu ziren keak eta usainek eragindako kutsadura atmosferikoagatik.

Ofizioz, 909 ikuskapen egin ziren tabernetan eta titularra aldatu den edo lizentzia berria duten establezimenduetan. Ondorioz, 22 espediente abiarazi ziren.

	2012	2013	2014	2015	2016
Ostalaritza-ikuskapenak	983	1126	1207	1033	777
Bestelako ikuskapenak (merkataritza, industria)	69	203	184	195	132
Guztira	1052	1329	1391	1228	909

HIRI EKOLOGIAKO ZERBITZUA

Udalaren egitura berria 2015eko irailean onetsi zen. Agenda 21en Bulegoaren izena aldatu, eta, horren orde, Hiri Ekologiako Zerbitzua izena ipini zitzaion. Zeregin berriak ere bere gain hartu zituen, adibidez: hiriko baratzeen sarea sortzea, konpostaje komunitarioko puntuak sustatzea eta korridore ekologikoen sarea sortzea.

Horren harira, Udalak **Iruñeko Hiri Ekologiako Behatokia** sortu zuen 2016an, eta horren helburua herritarren aholkularitza-kontseilua izatea da, hiriko ingurumen-errealitatea aztertzeko, Udalaren lanaren jarraipena egiteko eta Udalari neurriak proposatzeko. Zenbait lantalde sortu ziren gai hauekin lotuta: hondakinak, zarata, energia eta klima-aldaketa, hiriko nekazaritza, ondare naturala, animalien eskubideak, hiriko hirigintza, ingurumena, eta berdintasuna, sentsibilizazioa eta ingurumen-heziketa. Guztira, 153 pertsona bertaratu ziren: 66 emakumezko

eta 87 gizonezko. Horrez gain, martxoan Ingurumen Arloko Boluntarioen taldea aurkeztu zen, eta 37 pertsonak eman zuten izena. Lau taldetan banatu ziren: gaiaren arabera: biodibertsitatea, mugikortasuna, hiriko baratzeak eta hiriko konpostajea.

Bilerak egin ziren **baratze komunitarioak** antolatu nahi dituzten zenbait kolektibo eta elkarterekin, besteak beste, Baratzuri (Buztintxuri) eta Piparrikarekin (Alde Zaharra). Espazio bat laga zitzaien Pellejerías zokoan, nekazaritza ekologikoaren irizpideei jarraitzen dien baratze bat antolatzeko. Iruñean, lau dira **konpostaje komunitarioko puntuak**: hiru Sanduzelain, eta bat Mendebaldean. Sanduzelaiko bizilagunek beste bi puntu eskatu zituzten, eta lanean ari gara Santa Ana plazan beste bat izateko.

Bestalde, 2016an azterketa bat egin zen **Iruñeko Agenda 21en II. Ekintza Plana** zer neurritan bete den jakiteko. Guztira, 176 ekintza daude jasota; horien % 31 gauzatu dira, % 59 garatze bidean daude, eta gainerako % 10a ez da abiarazi.

Ingurumen Heziketarako Museoa 2003an inauguratu zuten, eta honako helburu hauek ditu: baliabide naturalak eta gizakion jardueren eta baliabide horien arteko elkarreragina ezagutzera eman eta baloratzea, eta iraunkortasunaren printzipioetan oinarritutako gizartearen eredu berri bat eraikitzen laguntzea, ingurumen-heziketa iraunkorra baliatuta. Trebakuntzako eta dibulgazioko jarduerak eskaintzen ditu, hala ikastetxeetarako eta irakasleentzat nola gainerako herritarrentzat. Orobat, dokumentazio-zerbitzuak, ingurumenari buruzko informazioa eta aholkularitza ere ematen ditu. Museoan, erakusketa iraunkorrerako lekuaz gain, mintzaldi-aretoa eta lau ikasgela daude. 2016ko azaroaren 1etik aurrera, Udalak kontratatutako ingurumen-heziketako talde bat hasi zen museoa kudeatzen.

Bestalde, 9.103 bisita izan zituen 2016an, eta hori da, hain zuzen ere, bisita gehien izan dituen bosgarren urtea, 2003an inauguratu zenetik gaurdaino. Webgunea ere badu; 2016an, 36.130 bisita zenbatu ziren hartan, 2015ean baino gehiago, 29.583 bisita izan baitziren. Facebooken 884 jarraitzaile ditu, eta Twitterren, aldiz, 701.

	Bisitariak			Guztira
	Partikularrak	Ikasleak	Beste talde batzuk	
2003	1.563	329	503	2.395
2004	998	1.329	662	2.989
2005	1.055	3.004	1.984	6.043
2006	669	2.417	1.796	4.882
2007	726	2.055	2.453	5.234
2008	620	3.920	2.602	7.142
2009	752	3.610	3.116	7.478
2010	637	4.367	3.383	8.387
2011	694	4.371	2.880	7.945
2012	1.037	4.104	4.288	9.429

2013	988	3.716	5.195	9.899
2014	941	4.429	5.899	11.269
2015	1.087	4.168	7.110	12.365
2016	843	3.940	4.320	9.103
Guztira	12.128	44.773	32.781	104.560

“Beste talde batzuk” epigrafean, Iraunkortasunaren Gelan 70 jarduera aurkeztu ziren, eta 2015ean, aldiz, 141 jarduera. Horien artean, hitzaldiak, tailerrak, erakusketak, ikastaroak, dokumentalen proiektzioak, azoka txikiak eta behatokiak daude. Denera, 3.013 pertsonak parte hartu zuten; batez beste, 43 lagun izan ziren jarduera bakoitzeko, eta, aurreko urtean, aldiz, 32 lagun izan ziren. Beste 18 jarduera ere antolatu ziren; esate baterako, tailerrak, jostailuak trukatzeko azoka txikiak eta ginkanak. Horiek guztiak lau ziklotan banatu ziren, hau da, urtarrileko lehen astean, Pazko astean, uda eta abenduko azken asteak; 476 parte-hartzaile egon ziren.

Alorra 2001ean hasi zen **Ingurumenaren Munduko Eguna** ospatzen, eta ekainaren 5ean izaten da. 2016an, Udalak parte hartu zuen Gurbindo Etxean ekainaren 11ko goizean eginiko jardueretan, Arantzadiko Ingurunean: paseoak astoek eramandako orgetan, produktu iraunkorrekin eginiko pintxo *show cookinga* eta artzain-zakurren erakustaldia.

2016an, ekintza asko egin ziren hiriko **biodibertsitatea hobetu eta mantentzeko**; besteak beste, azterlanak, espezie exotikoak desagerrarazteko esku-hartzeak eta herritarren partaidetza sustatzea. Adibidez, Mendillorriko aintzira hustu zen eta arrainak nahiz apoarmatuak atera ziren, bai eta 25 urtean zehar han botatako hondakin mordoa ere. Era berean, eremu bat erdi-naturalizatu zen bertako biodibertsitatea handitzeko. Aintziraren barruan, irla flotatzaileak ipini ziren hegaztiak han pausatzeko, eta ertzaren kanpoko aldean bertako zuhaixka-erako espezieak landatu ziren. Orobat, eta Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan, antzeko ekintzak egin ziren Taconerako eta Iruñeko Orfeoien parkeko urmaeletan. Bestalde, esku-hartzea egin zen Iruñean Asiako liztorraren 26 habia zeudelako, bai eta ezpel-sitsagatik ere. Belosoko aldatatik Magdalenako meandroraino doan tartean, hezegune bat sortu zen, eta espezie exotiko inbaditzaile batzuk desagerrarazi. Hala, bertako espezie ugari egotea sustatu zen: anfibioak, hegaztiak, kiropteroak, mustelidoak eta ornogabeak.

Helburu bererako, eta aintzat hartuta Hiri Ekologiako Zerbitzuaren zereginetako bat korridore ekologikoen sare bat sortzea dela natura hiriaren barnean egoteko, paisaiaren azterlan bat egin zen, egoeraren diagnostiko moduan. Hegazti ugaltzaileei buruzko azterlana berriz egin zen, eta ondorioa izan zen udalerriko hegazti-faunak bere horretan jarraitzen duela. Orobat, saguzarren kontserbazioarekin ere aurrera jarraitu zen. Guztira, 10 jarduketa izan ziren, 2015ean baino sei gehiago. Horiez gain, Udala eta Mankomunitatea lankidetzan aritu ziren Iruñerriko bi ibai-parkeen kudeaketa bateratzeko edo San Kristobal-Ezkaba eskualdeko parkearen hitzarmena adosteko.

Ilido berean, **udal-kontratueta ingurumenarekin lotutako irizpideak** txertatzea sustatu zen: udalerriko harresien eta zubien mantentze-lanak, zenbait udal-eraikinetako garbiketa eta hondakinen gaikako bilketa, eta Gabonetako azokarako etxolen hornidura, besteak beste.

Urteko lehen gauean, **edalonzi berrerabilgarrien** programa pilotua martxan jarri zen, eta, horren bidez, 6.000 edalonzi erosi ziren, lelo honekin: “Kalean zarata gutxiago. Tabernan hondakin gutxiago”. Edalonziak kanpainarekin bat egin zuten 22 establezimenduetan banatu ziren, Navarrería, Calderería, Mercaderes, Tellería, Merced eta Curia aldean. Guztira, 5.850 edalonzi banatu ziren, eta 4.269 edalonzi berreskuratu.

MUGIKORTASUN ZERBITZUA

Iruñeko Udalak, Mugikortasun Jasangarriaren Itunaren bitartez, bestelako mugikortasun-eredu baten diseinua sustatzen du, honako hauek oinarri hartuta: sistemaren jasangarritasuna, irisgarritasuna, segurtasuna eta eraginkortasuna, bizi-kalitatearen eta dinamismo ekonomikoaren bermea, eta, azkenik, kolektibo eta pertsona ororen gizarteratzea. Honako hauek dira alorrean lantzen diren jarduerak:

Autorik gabeko eguna **Europako Mugikortasun Astearen** barruan dago, eta hura irailaren 16tik 22ra bitarte izan zen, “Mugikortasun osasungarria: trukatu, aurreztu, gozatu” lelopean. Xedea autoa zentzurik gabe erabiltzeari buruz sentsibilizatzea da, kaltegarria baita osasun publikorako eta ingurumenerako. Beste xedea da herritarrei ohartaraztea gure hirian badirela joan-etorriak modu jasangarriagoan egiteko aukerak; adibidez, garraio publikoa, bizikleta eta oinez ibiltzea. Hainbat jarduera antolatu ziren, besteak beste, hauek: bizikletak, ordezeko piezak eta osagarriak trukatzeko azoka txikia, dirurik erabili gabe; bizikleta erabiltzera animatzen duten bizi-informatzaileak; bizikletei markak jartzea lapurretarik ez gertatzeko; ibilbideak bizikletaz, harresietan zehar; herriko txirrindularitza-martxa; familientzako antzezlanak; bizikletei azterketa egiteko tailerrak; eta ginkanak eta haurrentzako jarduerak. Horrekin guztiarekin batera, informazioa emateko stand bat egon zen.

Bizikletak doan alokatzeko **“Nbici”** zerbitzuak bost base ditu guztira, bizikleta garraiobide moduan sustatzeko: zezen-plazan, Gaztelugibelean, Nafarroako Unibertsitate Publikoan, Nafarroako Unibertsitatean (CIMA) eta Anelier pasealekuan. 2016ko abenduan 4.280 erabiltzaile baino gehiago izan zituen, eta urte horretan 165 lagunek alta egin zuten; kopurua 2015ekoaren antzekoa da, orduan 175 pertsona izan baitziren. Denera, 15.368 bidaia egin ziren, gehienak abuztuan eta irailean. Zehazki, 1.520 bidaia izan ziren irailean, egunean 49 bidaia batez beste; eta 2.222 bidaia abuztuan, batez besteko 74 bidaia egun bakoitzean. Astelehenetan egin ziren joan-etorri gehienak (2.566), eta asteko gainerako egunetan kopuruak antzekoak izan ziren. Hartara, bizikletek 38.420 km inguru egin zituzten 2016an. Ibilbide hori

autoz egin izan balitz, 2.305 litro erregai kontsumituko ziren, 3.000 euroko kostua eta CO₂-ren 5.376 kg-ko igorpenak eraginda, jendearen osasunerako eta ingurumenerako txarrak diren beste gas eta partikula batzuez gain.

Bestalde, **bizikletak aparkatzeko** 55 unitate instalatu ziren 2016an, eta, ondorioz, 330 toki gehiago prestatu ziren. Hirian, beraz, bizikletak aparkatzeko 676 unitate daude, eta 3.965 leku.

#BiziKalea programa hiri-mugikortasuneko estrategia baten barruan dago, eta, estrategia horren bidez, zirkulazioa asko areagotu den egungo eredua aldatu nahi da. Izan ere, hiriko eremu batzuetan, zirkulazioak bizitza baztertu du espazio publikoan, eta, horren eraginez, kalearen ezaugarri nagusietako bat desagertu da: topaleku izatea. Hori dela eta, jarduerak antolatzen dira, eta herritarrek parte hartzeko modu bat eskuarki ibilgailuek darabilten espazioak egun oso bat okupatzea da. Egundak izan zen hori: ekainaren 19an, Armada etorbidean; abuztuaren 21ean, Zaragozako etorbidean; urriaren 2an, Sanduzelaiko etorbidean; eta urriaren 20an, Marcelo Celayeta etorbidean. Besteak beste, futbol-partidak, familientzako kirol-probak, tailerrak, horma-irudiak, *bike trial*, mus-txapelketak eta karaokea antolatu ziren.

2013an, Bizikletaren Iruñeko Behatokia sortu zen, eta aurrerago **Mugikortasunaren Behatoki** izena jarri zioten. Parte hartzeko foro bat da bizikletaren egoera aztertzeko, hirian zehar ibiltzeko garraio-bide bat den aldetik. Ingurumen, Herritarren Segurtasuneko, Hiri Kontserbazio eta Proiektuetako alorretako udal-teknikariz eta arduradunetz osatua da, bai eta beste erakunde nahiz entitateetako ordezkari ere; hala nola DGT, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua, Iruñeko hiru unibertsitateak, Ermitagaña Txirrindulari Taldea, Garraio-bide Osasungarrien Elkarte (AMTS) eta Iruñerriko Txirrindularien Elkarte (CCCP). Hartara, bost bilera egin ziren 2016an, eta jorratutako gai nagusiak mugikortasunari buruzko ordenantza eta bizikletetarako azpiegiturak izan ziren.

Urrian, **Mugikortasun Iraunkorreko Plana** aurkeztu zen Mugikortasunaren Behatokian. Plana datozen urteotan garatuko da, eta xede hauek ditu, besteren artean: oinezkoentzako mugikortasun-baldintzak hobetzea; garraio publikoa indartzea; eta txirrindularientzako zuzeneko sare bat abian jartzea, segurua, eroso eta erakargarria dena. Ildo horretan, 2016an Barañain-Burlatako eta Pio XII.eko ardatzetan lan egin zen.

Bestalde, lehen **ziklo-kaleak** abenduan jarri ziren martxan Sanduzelai auzoan, orduko 30 kilometroko edo hortik beherako abiadura-muga duten bideetan. Errei bakoitzaren erdian zirkulatzen hasi ziren, eta baldintza berberetan bizikletak eta ibilgailu motordunak.

“**Autoan elkarrekin**” ekimenean, Udalaren webgunearen bidez, erabiltzaileak www.compartir.org webgunean erregistratzen dira, eta bidaiak ibilgailu pribatu batean egiteko beste pertsona batzuk bilatzen dituzte. Horrela, gastuak partekatzeaz gain, igorpen kutsagarriak

eta zirkulazioa murrizten dira. Zerbitzua 2005ean jarri zen martxan, eta ordutik gaurdaino 1.950 erabiltzaile erregistratu dira. Batez beste, 337 erabiltzailek partekatu zuten autoa eguneko, 3 pertsona ibilgailu bakoitzean.

Mugikortasun iraunkorra sustatzeko, Udalak 15 **bizikleta** arrunt eta hiru bizikleta elektriko jarri zituen udal-langileen eskura 2016an, haien joan-etorrietarako.

ENERGIA BERDEKO ZERBITZUA

Energia Berdeko Zerbitzuaren barruan, **instalazio berriztagarrien** jarraipen teknikoa egiten da hileroudal-erakin eta -lursailetan, ondo dabilzala ziurtatzeko. Instalazio horiek, adibidez, 21 herri-ikastetxetan, Ingurumen Heziketarako Museoan eta Gaztediaren Etxean daude. Behin-behineko kalkuluen arabera, ekoizpena 210.638 kWh-koa da, eta diru-sarrerak, 12.533,26 eurokoak.

Instalazio horiez gain, eguzki-instalazio termikoak daude ur sanitarioa berotzeko, besteak beste, udalerriko kirol-ekipamenduetan, Buztintxuriko Haur Eskolan, Milagrosako babespeko apartamentuetan eta geotermiako nahiz biomasako instalazioetan. Azken energia-mota horren berri emateko, “Biomasa, zure etxean demasa” azoka antolatu zen martxoan, Gazteluko plazan. Energia Berdeko Zerbitzuak laguntza tekniko baten lizitazioa antolatu zuen 2016an, 39 udal-erakinen **Energia Ziurtagiria** eskuratzeko, oraindik ez baitzeukaten.

“**Energia ezagutu eta konta ezazu**” heziketa-programaren bidez, ikasleak energia-kontsumoaren gainean sentsibilizatu nahi dira, energia aurrezteko banako eta taldeko ohiturak sustatu, eta ezagutza egokia helarazi energia berriztagarriei buruz, energia fosilen aldean. Tailerrak Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako eta Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleentzat dira, eta ikastetxean bertan egiten dira, gaztelaniaz edo euskaraz. 2015-16 ikasturtean, 3.376 ikaslek hartu zuten parte; Lehen Hezkuntzako 2.235ek eta Bigarren Hezkuntzako 1.141ek. Lehen Hezkuntzan, 84 tailer egin ziren 16 ikastetxetan; Bigarren Hezkuntzan, berriz, 56 tailer egin ziren 10 ikastetxetan. Ikasturtean zehar, orobat, VI. Marrazki Lehiaketa antolatu zen.

Europako Batzordeak **FIESTA** proiektua onetsi zuen 2014an, eta, beraz, aurrekontu osoa 162.084 eurokoa izanik, 121.536 euroko laguntza eman du Iruñeko etxebizitzetan energiaren gaineko 150 ikuskapen egiteko eta energiari buruzko informazioa eta aholkuak ematen dituen erakusmahai bat sortzeko. Proiektuko bazkideak Europa osoko bost teknologia-zentro eta 14 hiri dira. Hartara, 2016ko bukaeran, 100 ikuskapen eginak zeuden eta erakusmahaia martxan zen. Horrez gain, tailerrak antolatu ziren gailu eraginkorren kontsumoari buruz eta energia aurrezteari buruz, adibidez.


Energia Berdeko Zerbitzuak **arreta pertsonalizatua** ematen die partikularrei eta enpresei, eta informazioa ematen die energiaren ezaugarrien, aplikazioen eta diru-laguntzen gainean. Gehien egiten diren kontsulten artean, % 38 energia-ziurtagiriei buruzkoak dira; % 20, Fiestas proiektuari buruzkoak; eta % 14, eraikinen energia-eraginkortasunari buruzkoak.

Bestalde, 2016an urrats gehiago eman ziren **jatorri % 100 berriztagarriko energia merkaturatzeko udal-erakunde** bat sortze aldera; zehazki, bideragarritasun ekonomikoa eta teknikoa aztertzeko lehen azterlana egin zen. Ildo berean, hiru ardatzi jarraitzen zaie **pobrezia energetikoari** aurre egiteko: herritarren foroak, azterlanak, eta tailerrak eta zabalkunde publikoa jasotzen dituzten beste ildo batzuk.

DESINFEKZIO-PARKEA

Estoldetan arratoi-garbiketa egiteko prozedura aldatu egin zen 2016an, ez baitzen saneamendu-erregistro guztietan jardun, modu selektiboan baizik. Horren ondorioz, zerbitzuak % 68 egin zuen behera: 2015ean, 21.193 jarduketa egin ziren, eta 2016an, 6.744. Era berean, puntu beltzetako desinfekzioa ez zen egin sanferminetan, ikusi baitzen udalerriko beste zerbitzu batzuek bide publikoan egiten dituzten lanak bitan egiten zirela.

1. grafikoa- Egindako zerbitzuen kopurua



Desinfekzioen harira:

	2012	2013	2014	2015	2016
Desinfekzioak (partikularrak)	16	17	9	15	18
Autoklabeak	26	60	79	107	94
Formaldehido-ganbera	3	0	0	0	0
San Domingoko eta Zabalguneke merkatuak	53	52	52	104	102
Udal Zerbitzuak (bide publikoa)	2.086	2.108	2.198	2.082	1.949
Arropa-garbiketa (zuhurtziazkoa)	82	175	249	332	254
Arropa-garbiketa (udal-egoitzak)	598	621	652	649	605
Guztira	2.864	3.033	3.239	3.289	3.022

Bainu-etxeke eta komun publikoetan (sanferminetako eramangarriak barne) usaina kentzeko zerbitzua enpresa esleipendunetako garbiketako langileek eman zuten.

	2012	2013	2014	2015	2016
Bainu-etxea eta komun publikoak	942	953	962	974	52

Hona hemen urte hauetan eginiko desinfekzioak:

Urtea	2012	2013	2014	2015	2016
Intsektuak hiltzea (partikularrak)	115	112	97	129	150
S.A.I.D.E.	10	10	4	3	0
Udal-egoitzak	404	428	453	307	270
Ikastetxeak eta haur-eskolak	40	38	40	35	41
Elizak	1	0	0	0	0
Bainu-etxea eta komun publikoak	166	166	166	167	169
Zerbitzuak, guztira	736	754	760	641	630

Zerbitzu horien barruan daude Asiako liztorra eta eltxo tigrea kontrolatzeko lanak.

KOMUN PUBLIKOAK, BAINU-ETXEA ETA ANTONIUTTIKO DUTXAK

Iruñean, 10 **komun** tradizional daude (obretakoak eta langileek kudeatuta) eta beste 25 komun automatiko, hiriko zenbait eremutan banatuta. Komun tradizionalak ia bi milioi aldiz erabili ziren 2016an, eta komun automatikoak, 316.000 inguru. Komun tradizional erabilienak Gazteluko plazakoak dira; gero, Gurutze plazakoak, Sarasate pasealekukoak eta Basotxokoak.

Bainu-etxea Eslava kalean dago, eta hau da horren erabilerak izan duen bilakaera:

	2012	2013	2014	2015	2016
Gizarte Zerbitzuen dutxak	876	809	741	678	768
Dutxak, guztira	7.992	8.123	7.190	6.963	7.153
Komunak	7	11	4	1	24
Dutxak eta bainuak, guztira	7.999	8.134	7.194	6.964	7.177

Zerbitzu-kopuruak % 3 egin zuen gora 2015eko kopuruaren aldean, batik bat Gizarte Zerbitzuen auzoetako unitateek bideratutako pertsonen eskaerengatik.

Arropa garbitzearen eta lehortzearen harira:

	2012	2013	2014	2015	2016
Gizarte Zerbitzuetako garbiketak	544	370	571	865	783
Garbiketak	1.324	1.095	1.240	1.545	1.615
Lehorketak	1.248	942	1.142	1.477	1.488
Garbiketak eta lehorketak, guztira	2.572	2.037	2.382	3.022	3.103

Hirian, sei dutxa daude **Antoniuttiko parkeko** komun publikoen esparruan. Ur beroa dute termo elektriko baten bidez. Hona hemen nolako erabilera izan duten:

	2012	2013	2014	2015	2016
Dutxa-kopurua	1.386	1.689	776	1089	1090

XIRINGAK BILTZEKO ZERBITZUA

Antzeko xiringa-kopurua bildu zen 2016an eta 2015ean, baina hautsi egin da azken urteotan ikusi den pixkanakako beheranzko joera. Xiringa gehien aurkitu dira San Juan, Arrotxapea eta Sanduzelai auzoetan, eta aurreko urtean ez bezala, Milagrosako auzoan ere agertu dira xiringak. Etxabakoitzen, Iturraman, Mendillorin eta Landabenen ez da xingararik aurkitu. Zabalgunean, ordea, sei xiringa aurkitu dira; Alde Zaharrean eta Milagrosan, hiruna xiringa; eta Txantrean, xiringa bat.

	2012	2013	2014	2015	2016
Urtarrila	9	5	9	5	4
Otsaila	12	24	17	7	1
Martxoa	22	13	3	8	2
Apirila	16	6	4	5	5
Maiatza	6	24	10	6	3
Ekaina	10	57	7	0	2
Uztaila	18	22	16	0	3
Abuztua	7	9	15	1	5
Iraila	107	5	6	0	9
Urria	12	16	2	2	3
Azaroa	6	15	0	3	0
Abendua	6	2	3	5	7
Guztira	231	198	92	42	44

IRUÑEKO HILERRIA

San Joséko udal-hilerrian, hala eramate-kopurua (% 4,82) nola errausketa-kopurua (% 10,06) handitu ziren 2016an, 2015eko kopuruekin alderatuta. Udalerriko esparru horretan, segurtasun-kamerak daude hilerria sartzeko ate guztietan, maiatzean lapurreta bat gertatu zelako.

Lurperatze-motak	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Nitxoak	560	510	481	500	457	427
Lurra	17	20	19	20	15	8
Panteoiak	220	197	189	234	214	184
Gorpu-errausketak	1.440	1500	1568	1786	1888	2078
Guztira	2.237	2.227	2.257	2540	2573	2697

Ikusi da hobitik ateratzeek gora egin dutela, urtarilean bi lur-txankal altxatu baitziren, 313 gorpuzkirekin. Kopuru hori alde batera utzita, aurreko urteetako beheranzko joerak bere horretan jarraitzen du, errausketekin nitxo gutxiago erabiltzen dira eta.

Ateratze-motak	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Beste hilerri bat	241	245	254	84	9	19
Hezurtegi bateratua	1.133	686	675	795	681	803
Birlurperatzeak	149	134	139	106	127	136
Gorpuzki-errausketak	226	220	328	240	277	261
Guztira	1.749	1.285	1.396	1.225	1094	1219

Diru-sarreraren harira, pixka bat handitu ziren 2015ekoen aldean, eta urteroko ildo beretik doaz, panteoien enkanteak alde batera utzita.

Kontzeptua	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Panteoien enkantea	188.500,00	0,00	88.250	0,00	0,00	0,00	0,00
Ehorztetxeetara	603.520,16	631.848,82	613.116,13	645.830,08	685.426,42	709.372,41	753.173,74
Tasak lekualdatzeengatik	35.132,35	33.330,99	30.913,59	35.830,49	29.026,26	39.589,69	37.853,81
Tasak luzapenengatik	262.486,80	229.300,65	223.512,55	221.920,90	204.568,10	227.391,65	199.411,35
Guztira	1.089.689,31	894.480,46	955.792,27	903.581,47	919.020,78	978.368,75	992.454,90

Udala jatorri musulmaneko herritarren lurperatzeak bideratzeko aukera aztertzen hasi zen 2016an. Bileretan, musulmanen Nafarroako eta Iruñeko komunitateetako kideek hartu zuten parte, hirian gurtza hori duten gehienak bertan biltzen baitira. Hartara, irtenbideren bat eskatu zuten lurperatzeetarako, gaur egun horiek mugatzen dituen protokoloa aldatuz. Debekua dela eta, familiek aberriratzea edo Zaragozako hilerriera eramatea erabaki behar izaten dute. Laburrean, musulmanen komunitateak hiru eskaera nagusi egin zituen: hobiak ekialderantz orientatzea, lurperatzeak taldeka egitea, eta azkenik, hilobietan zerbait laburra idatzi ahal izatea. Orain, Udala proposamena aztertzen ari da, bai zerbitzu juridikoen ikuspegitik bai udal-hilerriaren ikuspegitik.